

34/1998 FORU DEKRETUA, martxoaren 10ekoa, zerbitzugintza kartografikoengatiko prezio publikoaren zenbatekoak aldarazi dituena.

34/1998 FORU DEKRETUA, martxoaren 10ekoa, zerbitzugintza kartografikoengatiko prezio publikoaren zenbatekoak aldarazi dituena

Foru Aldundiaren helburuetako bat Bizkaiko Lurralde Historikoaren ezagutza hedatzea da; horretarako, Hirigintza Sailak gertutu eta argitaratu duen kartografiaren kopiak jartzen ditu salgai.

Azaroaren 16ko 114/1993 Foru Dekretuak, zerbitzugintza kartografikoarengatiko prezio publikoa aplikatu eta garatu duenak, laugarren artikuluan jasotzen ditu prezio publikoaren zenbatekoak.

Hala ere, alde batetik azken urteotan kartografia gertutzeko erabiltzen diren makinek eta aplikazio informatikoek izan duten bilakaera, eta bestetik, euskarri berrien plazaratzea (CD ROMak barbarako) dela eta, prezio publiko honen zenbatekoak berrikusi egin behar dira.

Hori dela bide, Ogasun eta Finantza Sailaren Foru Diputatuak proposatuz, eta Foru Aldundiak 1998ko martxoaren 10ean egindako bileran eztabaidatu eta onetsi ostean, ondokoa

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra

Zerbitzugintza kartografikoarengatiko prezio publikoa aplikatu eta garatu duen azaroaren 16ko 114/1993 Foru Dekretuaren laugarren artikulua aldarazi da; horrenbestez, artikulu horren idazketa ondokoa izango da:

«4. artikulua.- Zenbatekoak.

Prezio publikoa, BEZ barne, ondoan azaltzen diren tarifen arabera eskatuko da:

4. 1. Kartografia.

Eskala	poliester papera	koloretako papera	paper normala
	Pta/aleko	Pta/aleko	Pta/aleko
1:500	784	1.276	465
1:1.000	784	1.450	465
1:2.000	784	1.276	465
1:5.000	784	1.450	465
1:10.000	610	331	454
1:20.000	523	329	448

4.2. Aurreko serie kartografikoen euskarri magnetikoak. Minuta kartografikoa

Eskala	Disketea	CD ROM
1:500	530 pta/aleko	400 pta/CDko + 530 pta/fitxategiko
1:1.000	530 pta/aleko	400 pta/CDko + 530 pta/fitxategiko
1:5.000	637 pta/aleko	400 pta/CDko + 637 pta/fitxategiko

CD ROM euskarriko salmenta CD bakoitzeko hogeirako edo hortik gorako plano/fitxategi kopururako baino ez da aurreikusitua.

4.3. Sare geodesikoaren aipamenak. Berdinketa-guneak. Triangelaketa, Prezisioko poligonalak eta Berdinketa Geometrikoaren Kotak (aipamenaren fotokopia eta krokisa barne): 329 pta/aleko.

4.4. Hegalaldi fotogrametrikotako airezko argazkien fotokopiak: 331 pta/aleko

4.5. Mapen edizioak.

		pta/aleko
Bizkaiko mapa	E1/100.000	522
Bizkaiko Mapa Artezkaria	E1/50.000	464
Ibaizabal itsasadarraren mapa.....	E1/10.000	1.354
Uribe-Kosta pasabidearen mapa.....	E1/10.000	824
Mundakako itsasadarraren mapa.....	E1/10.000	922
Ibaialdeak-Durangoko mapa	E1/10.000	1.377
Elantxobe, Lekeitio, Ondarroa kostaldearen mapa	E1 /10.000	1.259
Bilbo-Uribe eta Ezkerraldearen mapa.....	E1/20.000	1.614
Bizkaiko erliebe-mapa	E1/100.000	3.915»

AZKEN XEDAPENAK

1. Ogasun eta Finantza Foru Diputatuari baimena eman zaio honako Foru Dekretu hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

2. Honako Foru Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

Bilbon, 1998ko martxoaren 10ean.

Ogasun eta Finantza Sailaren Foru Diputatu,
FERNANDO OLMOS BARRIOS

Diputatu nagusia,
JOSU BERGARA ETXEBARRIA